

uk

131. zenbakia / 2007 otsailak 4



# EUSKARAZKO IRAKASKUNTZAREN ALDE

## 2 ETA 3 URTEKO UMEAK MATRIKULATZEKO KANPAINA



### Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Semaforo loraduna. J. M. Martinez "Bubu"
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Txurruka moila.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Paskual Molongoa.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopolana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

#### SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Getxoko I. Kirolaren Gala.
- 28. ARGAZKIA. Ereaga, 1953.
- 30. BERBETAN. Natalia Monge dantzaria, Zuberoa Iturburu.
- 34. FOTOGRAFIA. Faveletako dantza. Vincent Rosenblatt.

#### KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. "Munduari Mundo" egitasmoa.
- 43. MUSIKA. Musika liburuak. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Antologia batzuk. Liburuaren erreseinak.
- 45. KIROLAK. MUSeko herri-txapelketa.
- 46. ELKARRIZKETA. Aizkoa Olabarrieta.

#### AMAITZEKO

- 49. NON JAN. Algortako Armonia begetarianoan.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Astrabuduko Abxapxe G.E.A.M taldea, Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Alex Sardui, Ander P. Goikoetxea.

Azala: Vincent Rosenblatt



30 Natalia Monge




11 Paskual Molongua

#### Berbetan

Dantza garaikideko *Lilas* ikuskizuna estreñaitu berri du Natalia Monge dantzari getxoztarak Leioan, maiatzerako beste bat dauka prest.



46 Aizkoa Olabarrieta



34 Faveletako dantza



16 Golo Layana



54 Alex Sardui

Bilatu zure Renault "Km.0"

Bilbo Berri Getxo-ren web berrian

[www.seminuevosengetxo.com](http://www.seminuevosengetxo.com)


#### BILBO BERRI

Bizkerre, s/n - ALGORTA. Tel. 94 430 68 81



**UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA**

**ARGITARATZAILEA:** Boluntzarreta Elkarte  
**HELBIDEA:** Ameztzi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO  
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171  
 Tel: 94 491 13 37  
**ZUZENDARIA:** Jokin Aspuru  
**ERREDAKZIOA:** Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea, Maitane Nerekan, Zuberoa Iturburu  
**FOTOGRAFIA:** Asier Mentxaka, Jose Mari Martinez  
**TESTUEN ORRAZKETA:** Inge Beitia  
**KOLABORATZAILERAK:** Jorje Perez, Bittor Egurola, Oskar Fernandez, Itsaso Arana, Galzka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarte  
**MARRAZKILARIAK:** Dogan Gozel, Gorka Vázquez  
**PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA:** Zuriñe Martinez (94 491 13 37)  
**KANPO HARREMANAK:** Gorka Orueta  
**FILMAZIOA:** Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF  
**LEGE GORDAILUA:** BI-1878-00  
 ISSN: 1576-6799  
 © Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

**ERAKUNDE LAGUNTZAILERAK**



**gugeu**


# Otsaileko martxan

Zenbaki hau jasotzeagaz batera estreinatuko dugu otsaila, irakurle. Urtarileko urte berrirako proposamenak eta nahiak honezkerok zaharkituak lotu dira, agian, berriro ere... Otsaileko talaiatik urrun xamar lotzen dira Gabon zahar gaua, urte berriko lehenengo siesta... Alabaina, dagoeneko, gogotsu ala kostata, baina martxa hartu diogu 2008 honi; hala, aurtengo bigarren UK duzue hau. Baliteke, irakurle, lurrin berezia antzematea zenbaki honi, UKko lantaldean kide berriak (ezagun zaharrak) sartu dira eta. Hamaika bider esan badugu ere, "okerrak barkatu eta ondo egindakoak kontuan hartu". Horrez gainera, zenbaki honi, zelan edo hala, otsaileko usaina dariola esan liteke, hil honetako berezitasun eder batzuk orrialdeotara ekarri ditugulako, berbarako: aurtengo aratuste goiztiarrak, lurra esnatzeko Santa Agedako makilen danbatekoak, maitaleen eguna dela eta gutun lehiaketa baten proposamena... Otsaila misterioz betetako hila baita, amalurra lozorrotik esnatzen hasten deneko garaia, mimosak ere loratan daude, eta gu... Gu ere, ohikoak eta berriak, UKren urte berri bati martxa hartzen gabilta, bagabilta!

Hurrengoan hobeto, ordura arte! ✓

**UK-ko lantaldea**

**matematika aplikatua**



Gorka Vázquez

**aipagarria > 2008ko harpidedun kuota**

**uk adi!**

Honekin jakinarazi nahi dizuegu  
 otsailaren hasieran 2008ko harpidetza kuota jasotzen hasiko gara  
 Aldez aurretik mila esker danoi.

**Zalantzarik balego deitu 94 491 13 37 telefonora**



[irudia]

LEIOA, 2007

**Semaforo lorehunak Leioan /** Korrika eta presaka ibiltzen gara oinezkoak maiz eta ez diogu erreparatzen semaforo jakintsuek esaten digutenari. Goiko honetan, jaramon egin nahi izanda ere, zaila egingo litzaiguke, Leioako semaforo honek, bere zuhaitz itxurarekin, gizontxo gorri eta berdeek esan nahi digutena ulertzeko zailtasunak ematen baititu. Auskalo nor jarri zituen lore koloretsu horiek. Agian itzarroteaz nekatuta zegoen herritar batek. Edo, beharbada, aurreko espaloiko semaforoarekin ligatu nahian, bere burua apaintzea erabaki zuen semaforo andereak. Izan ere, denoi gustatzen zaigu geure burua eder ikustea; baita lanean gaudenean ere. ○ / Argazkia: **J.M Martinez Bubu**

# Literatur Solasaldiak

*Hilabetean behin elkartu irakurritako liburu bati buruz aritzeko, nahi?*

*2008ko otsailerako: Uxue Alberdi, Aulkia elurretan (Elkar)*

*eman izena, posta elektronikoa eta telefonoa*

# leioa



*izena emateko edo  
argibideetarako:  
liburutegia@leioa.net  
94 607 25 74*

# literatura



[lehen]



[orain]



**Iraganez doa denbora\* beti / TXURRUKA MOILA**

\* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

## uribitakora &gt; homo lumens



San Nikolas plaza urte hasieran


Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **J. M. Martinez "Bubu"**

Negua iritsi zen  
Algorta erdira,  
baina urte berria  
berriro hasi da.  
Gabonak argiekin  
egingo balira  
nork itzaliko luke  
bonbilen distira?

Nahiz Gabonetan piztu  
argien ohitura,  
Olentzerok ordaintzen  
ote du faktura?  
Artean Iberdrola  
bizi da gustura  
"abuztua eginaz"  
Gabonen kontura.

Gizakia jadanik  
ez da hain gizaki  
bizimodu aldrebes  
samarra izaki,  
egunari itzala  
sortzen dio beti  
eta gaua argitzen  
besterik ez daki.

\* Doinua: Haizeak bidali du



## BASALBO BASERRIA JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO  
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

## erakusketa &gt; Euskal itsasgizonen bizitzak Plentziako museoan



2008ko urrira arte

**Butroiko Plazentia Museoan**, Plentzian, erakusketa berria jarri dute martxan, 2008ko urrira arte egongo dena. Honetan, garrantzi nabarmena izan duten euskal nabigatzaileen bizitza eta ekintza gogoangarriak bildu dituzte. Juan Sebastian Elkano, Blas de Lezo, Andres Urdaneta, Cosme Damian Txurruka eta Ignacio Olaeta dira erakusketan aurkituko ditugun abenturazaleetako batzuk. 27 itsasgizon zibil edota militarren bizitzaren bitartez, Euskal Herriarentzat itsasoak izan duen garrantzia islatu nahi izan dute museoeko lagunek. Batailen kontakizunak eta itsasontzien adierazpen grafikoak zein deskribapenak aurkitu ahal izango dira. Honez gain, Museoaren erakusketa iraunkorra XVII. mendeko Plentziako diorama batez osatu dute. Astilleroko ontziolak, zerratzaileak, upelgileak eta istinkariak ikus daitezke, besteak beste. o

## ingurumena &gt; Udalen esku gelditu da ingurumenaren kudeaketa



Ubarroiak Abran

**Bizkaiko Batzetako** Nekazaritza eta Ingurumen Batzordeak Alderdi Popularrak (PP) egindako proposamena atzera bota zuen joan den urteko abenduaren 21ean. Honetan, Astrabudurako (Erandio) Ingurumen Aretoa eta Abrarako (Getxo) itsas-txorien behatokia eskatzen zuten; azken honek, La Bolako hondartza (Getxo) eta Lamiakoko paduretara (Leioa) informazio bulegoak izango lituzke. Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ) eta Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE) proposamenaren kontra agertu eta hau bertan behera gelditzea lortu zuten. Egitasmo hauek Erandio, Getxo eta Leioako udalen esku gelditu dira eta hauek erabakiko dute martxan jarriko diren. PSE eta EAJren ustez, udalena izan behar du horrelako proiektuetarako ekimenak. o

## saiazgetaria



Roke Deuna 25  
280808 Getaria  
Gipuzkoa




...harria

...lehengo garaiak...

...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

**joan zaigu** > Joseba Goñi: langile nekazina. Ikusi arte!

UKren 102. zenbakirako egindako elkarrizketako irudia

**Joan den** abenduaren 25ean hil zen 66 urterekin Joseba Goñi. Gure azken zenbakia inprentan zegoenez, ezin izan genuen horren berririk eman. Langile nekazina, UK aldizkariko kolaboratzailea, gizon konprometitua, harremanetarako pertsona atsegina... hainbat ekimenen bultzatzaile edo sinatzailea pertsonen eta herrien eskubideen defentsan. Herria 2000 Eliza elkartearen koordinatzailea eta izen bereko aldizkariaren zuzendaria izateaz gain, NATOren aurkako manifestua, Herriei Gutuna, Autodeterminaziorako kongresua, Euskaria, Ibaetako Foroaren manifestua eta beste hainbat herri ekimenetan hartu du parte. Herria 2000 Elizak argitaratutako liburuen artean sonatuena *Euskadi. La Paz es posible* izan zen. 10.000 ale baino gehiago saldu ziren eta azkenik, Espainiako Gobernuak bahitu egin zuen. Eskualdean, pertsona ezaguna izan da gasolindegiko arduraduna izateagatik. Ikusi arte Joseba! ○

**ohiturak** > Santa Ageda: gure martiri maitea!

Santa Ageda bezperako ospakizuna.

**Hau irakurtzen duzuegerako,** Agedaren oroimenezko kantuak eta makilen kolpe hotsak entzunda izango dituzue jada. Hala ere, beharrezkoa ikusi dugu martiri siziliarraren istorioa, zein ospakizun paganoaren jatorria orrialdeotara ekartzea; izan ere, Uribe Kostako herri guztietan heltzen diogu ohiturari otsailaren 4an (Santa Ageda bezpera). Siziliako (Italia) familia aberats bateko emakume ederra izan zen Ageda. Quintianus senataria berarekin maitemindu eta emaztetzat hartzen saiatu zen; Agedak ezetza eman zion eta Senatariak, haserre, gaztea torturatzea eta bularrak moztea agindu zuen. Euskal Herrian ospatzen den Santa Ageda egunak mito paganoetan du oinarri. Egun honetako ospakizunek, zeriak handia omen dute inauterietan eta, aldi berean, sexuarekin. ○



[erretratu]

"Nire amak zarata asko egin zuen nitaz erditzean eta Tata Ngombi, 'musikaren aita', izena eman zidaten", dio Paskualek

**Paskual Molongua** > Bilboko Alde Zaharreko abeslaria


**Gehienok** Bilboko Alde Zaharreko kaleetan Benito Lertxundi edo Nino Bravoren kantak abesten ikusteagatik ezagutuko duzue Paskual Molongua, orain dela 32 urtetik Algortan bizi bada ere. Oso gustura dago gure artean: "Musikariak, ingeniariak... familia handi bat gara algortarrok". Dena den, ez ditū bere sustraiak ahazten. Ekuku ibaiaren bokalean (Ekuatore Ginea) etorri zen mundura eta jaiotzetik izan zuen musikarekin lotura. Bere benetako izena Tata Ngombi da, musikaren aita: "Nire amak zarata asko egin zuen nitaz erditzean eta horregatik, han zeuden zazpi emakumeek izen hori eman zidaten". Hortik aurrera, bizitzako gertakari ezberdinek eraman dute Bilboko kaleetara: "Kalea eszenatoki bat da; lekuri aurkitzen ez duzunean eta zerbait ondo egiten duzula dakizunean, aukera bat ematen dizu. Gainera, jende asko ezagutzeko aukera eman dit". Azken boladan, Euskalduna antzokiko oholtzarekin partekatu du kalea, Aita Arrupe Jesuitaren oroimenez egindako musikalean parte hartu baitu, Luis Armstrongen paperean: "Esperientzia ikaragarria izan da, nire ibilbide profesionalaren puntu gorena". Abeslari eta pertsona bezala zeregin bat dauka oraindik: "Kombeen Ndoue hizkuntzako kantautorea izan gura dut, nire ama hizkuntza. Hori da mundu honi eman ahal diodan gauzarik handiena". ○ Argazkia: J. M. Martinez / Testua: Maitane Nerekan

**cianoplan Reprografía**

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk  
Antiguo Golf - Getxo  
Tlf. 944 649 087  
944 648 691  
<http://www.cianoplan.es>


- Imprimatze eta plano kopiak •
- Kartelak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- enmarkaketak •



## Eraikin kulturalak babesteko plana

Udala plan bat prestatzen ari da **herriko eraikin historikoak** babesteko. Plana tramitatu bitartean ez da lizentzia berririk emango, baina horrek **ez du eraginik izango Punta Begoñan**

**Herriko elementu adierazgarriak babesteko plan berezia prestatzen dihardu udalak. Dokumentu bakarrean babes irizpide danak batu gura dituzte. Plana osatu artean ez dute lizentziarik emango. Punta Begoñan eraikiko duten hotelari ez dio eragingo, ordea, indarrean dauden arauak betetzen dituelako.**



Algortako Santa Clara egoitza ere babes bereziko eraikina da

**Getxon** adierazgarriak izendatutako 300 eraikin edo elementu daude. Interes bereziko guneak dira, daukaten balore artistiko, kultural eta historikoa dela eta. Udala horiek babesteko plana prestatzen dabil, eta dagoeneko, hasierako proiektua onartu du. Ekimen horrekin babes irizpide danak dokumentu bakarrean batu gura ditu. Orain bi arauditan banatzen dira eraikinak babesteko irizpideak. Eusko Jaurlaritzako dekretu batek herriko hainbat elementuren babes maila zehazten du. Beste eraikin multzo bat, berriz, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren baitan kokatzen da, eta haren irizpideen arabera erabakitzen da babes maila.

Joseba Arregi Hirigintza zinegotziak azaldu duenez, planak bi araudiak batuko ditu. Horrela, "norbaitek eraikin horietan lanak egiteko baimena eskatzean, berehala jakingo dugu lizentzia eman dezakegun", esan du Arregik. Gaur egun, udalak Foru Aldundiari txostena eskatu behar dio halako baimenak eman aurretik. Izan ere, Aldundiak erabaki ohi du eskakizun bakoitzak Eusko Jaurlaritzaren arauak betetzen dituen. Zinegotziaren iritziz, egitera doazen planak,

baimenak esleitzeko epea murriztu eta araudia argituko du, "eraikin bakoitzaren babes maila ezagutzeko, ez baita hainbat arautegitan bilatu behar".

Aipatu denbora hori aurrezteko, banakako fitxak egitea pentsatu dute, hots, eraikin bakoitzak bere fitxa izango du. Guztira, 300 elementutik gora dira. "Fitxa bakoitzaren eraikuntzaren detaileak bilduko ditu,

**«Egungo planteamenduagaz bat datozen lizentzietan ez die eragingo baimenak geldiarazteko erabakiak»**

haren babes maila jasoko du, zeintzuk elementu alda daitezkeen eta zeintzuk ez zehaztuko du", jakinarazi du Arregik. Hartara, bizilagunen batek baimen bat eskatzean, "fitxak dioenaren arabera emango diogu erantzuna". Udalak, bestalde, egun "babes

maila oso altua ez duten eraikinak lagundu" gura ditu, "birgaitzeko aukera izan dezaten eta gaur egunera begirako funtzioa bete dezaten, errespetatu beharrekoa bere horretan mantenduz".

Plana behin betiko onartu bitartean, ez dute baimenik emango eta prozedura horiek geldituko dituzte. "Baina egungo planteamenduagaz bat datozen lizentzietan geldierak ez die eragingo. Horixe da Punta Begoñako kasua", hau da, galerietan egin gura duten hotelaren kasua. Beraz, proiektuak ez du atzerapenik jasango plan honen karira, "Aldundiaren txostenaren menpe gaudelako bakarrik", zehaztu du Arregik.

Orain bost babes mailatan banatzen dira herriko elementu historikoak. Eraikinak dira gehienak. Bizkaiko zubia, Harino Panaderaren lantegia, Andra Mariko eliza eta Portu Zaharra tartean daude. ○

## Diru-laguntzak eskatzeko deialdia zabalik kultura, kirol eta gazte elkarteentzat



Getxo marka daramaten taldeek ere diru-laguntza jasotzeko aukera dute

**Udalak 2008ko** diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu du. Kirola, kultura, gazteria eta euskara arloan diharduten elkarteentzat 600.000 euro gorde du. Ekimen "onenen" artean banatuko ditu. Proiektuak aurkezteko epea otsailaren 29a arte luzatuko da. Aurrekontuaren %70 kirol elkarteek jasoko dute. Guztira, udalak 420.000 euro emango ditu talde horien eguneroko jarduerak eragiten dituen ohiko gastuak ordaintzeko. Iaz 34 taldek jaso zuten diru-laguntza.

Kultur ekintzei emango diete diru partidaren bigarren kopururik handiena. Kultur arloko elkarte eta taldeen artean 95.000 euro banatuko dira. Urteko egitarauak sortu gastuei aurre egiteko erabili behar dute dirua. Herrian jadanik errotutako egitasmoen lehen-tasuna emango diete, baita proiektu originalai,

etorkinen gizartratzea, eta emakume eta gizonen parekidetasuna bultzatzen duten ere. Kulturen murgilduta dabilen hamazortzi talde lagundu zituen diruz udalak 2007an.

Euskara sustatzen duten taldeek, berriz, partidaren 60.000 euro jasoko dituzte. 2003ko Euskara Sustatzeko Plan Orokorren barmean kokatzen da eta iaz hamaika elkarrek jaso zuten. Herriaren hizkuntza gaitasuna sustatzen duten ekimenek, ordea, urriaren 31 arte eska ditzakete laguntzak.

Gazte arloan, azkenik, 30 urtetik beherako pertsonen osatu taldeek eska dezakete diru-laguntza. Bestela, euren ekimenak gazteei begirakoa izan behar du. Hamabost elkarrek jaso zuten iaz laguntza. Eskara orriak eta bete beharreko baldintzen zerrenda [www.getxo.net](http://www.getxo.net) gunean eskura daitezke. ○

## SAKELAKO TELEFONOEN ANTENEN IGORPENAK NEURTUKO DITUZTE

Telefonia mugikorrek eragindako igorpenei etengabeko zaintza egiteko, bi sentsore jarriko dituzte laster, bata Algortan eta bestea Erromo edo Areetan; hots, igorpen gehien biltzen diren tokietan. Udalak mugikorrek sor litzaketen arazoak aztertzeko lan taldea osatu zuen abenduan. Antenarik Ez kolektiboko kideek, udaleko eta Espainiako Industria Ministerioko kideekin batera osatzen dute. Helburua antenak era adostuan ipintzea da. Paulino Mendibil kalean antena bat jartzeagatik protesta egin zuten auzokideek, bestalde. Proiektua geldiarazteko dekretua atera du udalak.

## IGERILEKUEN ORDUTEGIA LUZATU DUTE ASTEBURU ETA JAI EGUNETAN

Getxo Kirolak erakundeko Zuzendaritza Batzordeak estalitako igerilekuen ordutegia luzatu du larunbatetan, igandeetan eta jai egunetan. Ondorioz, arratsadeko ordutegi berria 16:00etatik 19:00etara izango da Fudurako eta Gobelako kiroldegietako igerilekuetan.

## ALOKAIRU SOZIALEKO PARTZELAK GOBELAKO APARKALEKUAN

Gobela kiroldegiko aparkalekuan hutsik dauden lekuak alokairu sozialean eskainiko ditu udalak auzoko bizilagunentzat. Aparkalekua 2003an zabaldu zuten, baina 29 partzela besterik ez zuten saldu, 281etik. Udaletik esan dutenez, laster aurkeztuko dute behin betiko proiektua. Erromo "oinezkoentzat erosoagoa izatea" nahi dute, "espalo zabalagoakaz, auzokideek goza dezaten". PPK txandatzeko sistema ezartzea proposatu du, udalak eskatu ikerketaren arabera, ezinezkoa da mota horretako aparkalekua egitea ingurune horretan". Bideragarria izateko, "komertzio edo lantoki kopuru handiagoa egon behar luke".

**SAN INAZIO**  
AUTOESKOLA  
1951N SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP  
**baimenak**

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45  
**ALGORTA**

**Garaizar**  
berrikuntzak

- igeltserotza orokorrean
- etxebizitzak eta lokalak
- gremioak

tel: 944 430 52 43 / 607 952 977 • [regaraizar@euskalnet.net](mailto:regaraizar@euskalnet.net)  
Ilieta Kalea 1 • ALGORTA

**YIRATI** moda gaztea opariak  
Torrene 2, ALGORTA  
T. 94 491 12 71

**Lander Solozabal** > Sendi egitasmoaren arduraduna

## “Sendi egitasmoak Getxoko familien artean euskara bultzatzea du helburu”



Sendiko kideak

**Egizu Getxo euskaldun elkarteko proiektua da Sendi. Egizu Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak eta herriko euskaltegiek osatzen dute. Euskaldunen komunitatea sendotu eta hedatzeko helburua dute, eurek diotenez, “denok dugulako zer eman eta zer jaso”. Sendiz gainera, beste hainbat proiektu ere badaroz Egizuk, adb.: Berbalaguna, irakurzaleen txokoa, Gazte Saltsa...**

—Zer da Sendi?

—Sendi orain bi urte sortu zen, Egizu eta udalaren artean. Azken horrek urteak zermatzan familientzako ekimenak antolatzen euskara sustatzeko. Baina eskaintza zabala egin nahi zuen, berbalagunaren modukoa izatea nahi zuen eta gurekin harremanetan jarri zen, Egizurekin. Hainbat urte generamatzan berbalagun proiektuarekin eta gurasoentzako zerbait egitea proposatu zigun. Horrela sortu zen Sendi proiektua.

—Zein helburu du egitasmoak?

—Funtsean, Getxoko familien artean euskara bultzatzea du helburu.

—Zelan gauzatzen duzue hori?

—Batetik, udalaren diru laguntzen eta herri-

ko euskaltegien informazioa eskaintzen diegu. Guraso askok ez daki matrikula doan izateko diru laguntzak ematen dituela udalak. Euskara ikastera animatzen ditugu horrela. Bestetik, ekimenak antolatzen ditugu: irteerak, tailerrak, hitzaldiak... Gehienak euskaraz egiten dira, bakan batzuk gaztele-raz. Maiatzan adididez, asteburuko barnetegia egiteko asmoa dugu. Sendiren ekimen guztiak Getxoko ikastetxeetan bi eta hamabi urte arteko haurrak dituzten gurasoentzako dira.

—Gurasolaguna aipatu duzu lehenago.

—Bai, beste ekimen bat da hori. Guraso talde txikietan biltzen dira kafe bat hartu eta solasaldia euskaraz egiteko. Guraso euskal-

dun zaharrak euskaldun berriekin biltzen dira astean behin. Ikastetxetik hurbil bildu ohi dira, umeak begirale batek zaindu dituzan. Begirale zerbitzua, gurasolaguna legez, doakoa da. Tailer batzuk, ordea, ordaintzen dira, baina ahalik eta merkeen egiten saiatzen gara.

—Zer moduz joan da dena?

—Orain gutxi iazko balantzea aurkeztu dugu udaletxean. Oso pozik gaude, bigarren urtean ia-ia bikoiztu baitugu partaideen kopurua. Urteko 25 jarduera egiten gabiltza, gurasolagunaz gain. Azken horretan 40 per-sona biltzen da orain.

—Otsailerako hamaika ekimen prestatu dituzue ezta?


—Zazpi jarduera burutuko ditugu. Deigarriena Jakarako irteera izango da. Asteburu osoko irteera prestatu dugu iraupen-eskia egiteko. Bestalde, hainbat tailerretan parte hartzeko aukera izango dute guraso eta haurrek. San Nikolas ikastolan gozogintza tailerra egingo dugu. Postrea euskaraz prestatuko dute 25 lagunek. Tarta tailerra ere egingo dugu. Sarrikobasoko txoko batean, berriz, pizza tailerra egingo dugu. Soinu tailerra ere prestatu dugu. Guraso eta haurrek tresnak prestatuko dituzte euren eskuekin, gero jotzeko. Erromoko ikastetxean, aldiz, musika jaialdia egingo dugu Xirula-Mirula elkartearen

### «Otsailerako asteburu osoko irteera prestatu dugu, iraupen-eskia egiteko Jakan»

laguntzaz. Iaz arrakasta handia izan zuen. Adinaren arabera, bi txandatan banatuko dira parte-hartzaileak, abestu, dantzatu eta jolasteko. Azkenik, Itsas Argia Dantza Taldeak ikastaroa eskainiko du. Erromerietan dantzatzeko diren euskal dantza ezagunak irakatsiko dituzte. ○

## Ludoteka berria Areetan

### Aisialdirako lekua eskaini eta euskara sustatzeko asmoz



Eskoletako plazan kokatu dute ludoteka

**Haurrentzako ludoteka** abian da abendutik Areetako Eskoletako plazan. Udalaren zerbitzu berriak 5 eta 12 urte bitarteko ehun umeentzako tokia du. Udaletxetik adierazi dutenez, “aisialdirako leku aproposa eskaintzeko eta arlo horretan euskara askoz gehiago erabiltzeko” helburuagaz zabaldu dute. Astelehenean ostiralera dago irekita eta bi txandatan banatu dituzte umeak, adin bakoitzari bereziki zuzendutako ekitaldiak egingo baitituzte: 17:00etatik 18:30era, 5 eta 8 urte arteko umeek hartzen dute parte eta 18:30etik 20:00etara, 9 eta 12 urte bitartekoek. Txanda bakoitzean, gehienez, 25 haur sartu dituzte, “ondo funtzionatu ahal izateko”. Ludotekan

ipuin kontalariak, eskulanak, antzerkia eta jolasetan aritzeko aukera dute auzoko txikienek. Erromoko Ziztu Bizian eta Algortako Eskubeltz Scout taldeek kudeatzen dute zerbitzua, Bilboko EDE Fundazioagaz batera. Aisibizia izenpean batzen dira hirurak. Agintaldi honetan, bestalde, Algortan beste ludoteka bat zabalduko dute, Aita Felix de la Virgen kalean. Areetakoak baino leku gehiago izango du, biztanle kopurua ere handiagoa delako. Pixka bat nagusiagoak diren gazteentzat, ordea, laster Gazteleku zabalduko du Udalak Algortako Urgull kalean. Hilabete batzuk barru, Erromo edo Areetan beste bat irekitzeko asmoa agertu du, gainera. ○

## GALEAKO FORTEAN JATETXEAREN ORDEZKO PROPOSAMENAK DAUDE

Galeako fortean jatetxe bat egitea izan zen proposamenik bozkatuena. Baina eraikin historikoa berrerabiltzeko bestelako proposamenak sortu dira. PSE-EEK hegaztien behatokia eta itsas museo txiki bat egitea proposatu du, baita beste proposamenak egin ditzaten ideien lehiaketa bat egitea ere. Udaleko Gobernu Batzordeak, ordea, erabakia berari dagokiola esan du. Halere, egungo proiektua hobetzeko proposamenak kontuan izango ditu.

## HAUR ESKOLA JARRIKO DUTE BI URTE BARRU ERROMOKO IKASTETXEAN

2009-2010 ikasturtean 0 eta 2 urte arteko umeentzako haur eskola zerbitzua eskainiko du Erromoko herri ikastetxeak. Eusko Jaurlaritzaren eta Udalaren arteko hitzarmenaren arabera, 36 haurrentzako tokia izango du. Algortako San Inazio eskolan, berriz, urte amaieran adin bereko umeentzako beste zortzi gela zabaldu nahi dituzte, egun martxan dauden egokitzapen lanak bukatu ostean.

## ARRIGUNAGAKO DUNA ETA HONDARTZEN GARBIKETA

Udalak Arrigunagako duna naturala berreskuratu du. Hondartzako eskubiko aldetik lekua egiten saiatzen ari da. Orain arte, pasealekua oztopatzen zuen eta urtero kentzen zuten pilatutako area. Bizilagun batzuk kexu dira, pasealeku artifizialaren bitartez errazagoa zelako hondartzara gurgildun aulkiakaz sartzea. Ingurugiro teknikoek, ordea, duna errespetatzea aholkatu dute. Bestalde, hondartzak garbitzeko 800.000 euro gastatuko du Udalak datozen bi urteetan. Lanak esleitzeko lehiaketa publikoa abiatu du.



**Basurto**  
Algorta S.L.  
altzariak

## LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m<sup>2</sup>ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA



Goio Layana > Leioako Liburutegiko arduraduna

“Irakurtzea telebistaren aurrean jartzea baino zailagoa da ekintza intelektuala eskatzen du eta”

**Literaturaren Nazioarteko Eguna hurbiltzen den heinean, Leioako Liburutegiak literatura solasaldiak antolatu ditu, gazteleraz zein euskaraz. Bide batez, leioaztarrek duten irakurtzeko ohituraz mintzatu gara liburutegiko arduraduna den Goio Layanagaz.**

—Zer antolatu du Leioako liburutegiak aurtengo Literatura Egunari begira?


—Gure asmoa literatura solasaldiak antolatzeko da. Solasaldia normalean izaten da jendea elkartzeko eta solasaldirako liburu bat hautatzeko. Behin liburu hori irakurrita, horren inguruko mahai-ingurua egiten da eta bakoitzak bere ekarpenak egiten ditu. Mahai-ingurua koordinatzaile batek kontrolatzen du eta aurrean, Isa Castillo izango da. Kontua da euskarazko talderik ez dela oraindik sortu; soilik pertsona batek eman du izena. Gazteleraz, ordea, 16 pertsonako bi talde sortu dira eta otsailaren 19an hasiko gara solasaldiekin. Kasu honetan irakurriko den liburua *Narradores de la noche* izango da.

—Euskarazko solasaldirako *Aulkia elurretan* aukeratu duzue, zergatik?

—Isa Castillo koordinatzaileak proposatu zuelako Uxue Alberdiren eleberria.

—Irakurtzen al dute leioaztarrek?

—Bai. Esate baterako, lautik batek liburutegiko karneta dauka; esanguratsua da behintzat. Hala ere, hona etortzen diren kopurua jaisten da. Baina etortzen direnak, nahiz eta gutxi izan, asko irakurtzen dute.



Goio Layana Leioako liburutegian

—Gaur egun ditugun teknologiek literatura irakurketa murriztu al dute?

—Nik baietz uste dut; jendeak nahiago du teknologia berriakaz jardutea. Noski, irakurtzea berez zailagoa da, ekintza intelektual bat eskatzen du. Telebistaren aurrean jartzeak ez du inolako esfortzurik eskatzen. Irakurtzeak, berriz, bai eta zoritxarrez, geure gizartean esfortzua ez dago oso ondo ikusita.

—Iaz zenbat liburu utzi zituen liburutegiak?

—Urtean 35.000 bat liburu uzten ditugu. Arrakasta gehien duten liburuak *best seller* deiturikoak dira. *Pijama marradunaz jantzi-tako mutikoa* da gehien irakurtzen ari dena. Ken Follet eta Toti Martinez de Lezearen liburuak ere nahiko irakurtzen dira. Normalean eleberri historikoa, polizialak edo intrigazkoak dira gehien irakurtzen direnak. Erromantikoa ere asko irakurtzen dute, batez ere emakumeek, haiek baitira publikoaren zatirik handiena. ○

## Eguzki-energia

EAEko eguzki-energia instalaziorik handiena dauka Askartza ikastetxeak



Eskolako teilatuan ipini dituzte eguzki-panelak

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) eguzki-energia instalazio termikorik handiena inauguratu zuen urtarrilean Leioako Askartza Claret ikastetxeak. Urtarrilaren 1etik aurrera ikastetxeak martxan du igerilekuko eta dutxetako 8.000 ur litroak berotzeko sistema berria. Modu honetan orain arte erabiltzen zen gasolio galdara ordezkatzeko instalazio termikoak. Guztira, 200 eguzki panel termiko daude teilatuan eta 400 metro koadroko azalera betetzen dute.

*Bikote Solar* enpresaren arabera, urteko 27.345 litro gasolio erretzea eta atmosferara 71 tona CO2 isurtzea saihestuko du berak sortutako instalazio berriak. Energia enpresak adierazi duenez, EAEko ikastetxeak energia-iturri garbien erabilpena bultzatzen ari dira,

eta asko dagoeneko panel fotovoltaikoak instalatu dituzte euren teilatuetan.

Udako oporrez baliatuz, *Bikote Solar* enpresak aurreko udan jarri zituen panelak. 200.000 euro inguruko inbertsioa behar izan du eta horretarako, Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) diru-laguntza jaso du. Instalazioaren urteko energia ekoizpena 232.430 kWh-tan balioetsi da, edo beste modu batera esanda, 27.345 litro gasolio erreaz lortuko litzatekeen energia kantitate bera. Alfonso Tejedor Askartzako zuzendariak "aurrenantzean, ikastetxeko 2.500 ikasleek gertutik ezagutu eta gozatu ahal izango dute eguzkiaren erabilpena eta ezinbestean ikasiko dute eguzkia energia-iturri garbi, agortezin eta doakoa izan daitekeela", esan du. ○

## 8.000 PERTSONEK HARTU DUTE PARTE KULTUR LEIOAREN EKINTZETAN

8.000 pertsona inguru bertaratu ziren Kultur Leioak antolatutako musika ikuskizun edota antzerki-emanaldiak ikustera. Tokiko gobernaren arabera, "Auditoriumean izandako ikuskizunak leioaztarren babesa dute". Auditoriumak umeentzako edo familiarentzako antzerki-emanaldiak, umorezko antzerkia, dramak, ohiko bertsioak eta saritutako obrak jaso ditu urte osoan zehar. Musikari dagokionez, Ariel Rot, Elliot Murphy, Pata Negra, Quimi Portet, Mikel Erentxun, Ruper Ordorika edota Shuarma bezalako artistak igaro dira Auditoriumetik. Horrez gain, dantza-ikuskizunak ere izan dira Leioan, tartean Marco Vargas & Chloé, Brûle-Dauphin, Damián Muñoz, Ertza edo Moaré artista ospesuek egon direlarik.

## TAILERRAK ETA ELIKAGAIEN BILKETA ATERPEREN EKIMENEZ

Leioako gazteentzako bulegoak 14 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduriko tailerrak eta ikastaroak antolatu ditu. Tailerrik aipagarrienetakoa larrua lantzeko aukerak; tailer hau otsailaren 21 eta 28, eta martxoaren 6 eta 13an burutuko da arratsaldean. Otsailaren 8a da izena emateko azken eguna eta 12 euro balio du. Gainera, urtarrilean Saharara bidaltzeko janari bilketa egin du Aterpek. Elikagaien gain, higieneko produktuak utz daitezke Aterperen egoitzan jarritako edukiontzian. Bestalde, aholkularitza dexologikoa antolatu du eguenetan hamabostean behin.

# Eskola Escuela

Plater-Tiro eta Ehizarako Kirol-Ekartera



Taberna eta kartutxo denda

Posta Kutxa 33 Leioa  
Tel: 94 633 81 59

# udondo

taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre, 2  
T: 94 463 00 45 - LEIOA

# ERROTULOAK

THE BEST  
UNE-UNEN ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO  
ERROTULOAK eta  
INPRESIO DIGITALAK

egiten ditugu

e-mail: [hirustab@euskalnet.net](mailto:hirustab@euskalnet.net)

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07  
e-mail: [leioa@ikastola.net](mailto:leioa@ikastola.net) • [www.ikastola.net/ikasweb/leioa](http://www.ikastola.net/ikasweb/leioa)

Marisa Zorita eta Pedro Lopez Zaldondo > San Jose egoitzako arduradunak

## “Bizi iraupena luzatzeak poztu baino, **kezkatu egiten gaitu**, gastu asko dakartzalako”

Duela 22 urte sortutako zentro sozio-asistentzial mistoa dugu San Jose Egoitza. Marisa Zorita eta Pedro Lopez Zaldondo egoitzako arduradunek azaldu dutenez, etxez etxeko laguntza eta egoitzako egonaldiaren bitarteko baliabidea da eskaintzen dutena.

—Zer zerbitzu eskaintzen du San Jose Egoitzak?

—Alde batetik, zahar-etxea eskaintzen dugu eta horren barruan hemen lo egiteko aukera sartzen da; bestetik, eguneko zentrua ere eskaintzen dugu, hau da, goizez etorri eta arratsaldez etxera bueltatu. Zahar-etxean 59 laguntzako lekua dago eta egun osoko zentruan 20rentzako. Arreta pertsona bakoitzari egokitua da; hemen denetarik lantzen dugu, elikadura, garbitegi zerbitzua, osasun zerbitzua... Eguneko zentruan, gainera, etxerako garraio zerbitzua ere eskaintzen dugu. Horretaz gain, podologia, ile-apaindegia, errehabilitazio zerbitzua... eskuratzeko aukera dago.

—Zer baldintza bete behar dira zerbitzu hauetaz baliatzeko?

—Egoitzan sartu ahal izateko Erandion erroldaturik egon behar duzu, gutxienez azkeneko bost urteetan. Eta lagunduriko pertsonak, alegia, eguneko zentrua doazena, baldintza berbera bete behar dute. Hala



Zorita eta Lopez Zaldondo

ere, hitzarmen bat daukagu Diputazioagaz eta inguruko herrietako jendea ere hona bidaltzen du.

—ISO kalitate ziurtagiria jaso duzue.

—Bai, horrela eskatu genuen eta. Enpresa batek jarri ginen harremanetan, eta honek ziurtagiria lortzeko aholkuak eman zizkigun. Urte beteko prozesua izan da, eta azkenean, *aztertu* egin gaituzte.

—Ondo zaintzen ditugu adinekoak?

—Orokorrean ez. Ia, ezin daiteke orokortu, baina adineko pertsona batek arazo gutxi batzuk ematen dituen momentuan zahar-etxe-

an sartzeko ohitura zabaldu da. Kontuz ibiltzeko gaia da hau. Antzina ez zen horrela gertatzen: adinekoak euren senideakaz bizi ziren, etxean. Beharbada, garai horietan familia zabalagoa zen. Gero ere, beti dinodan arazoa daukagu esku artean: haurren heriotzak murriztea lortu dugula esaten dugunean, *bikaina* da hori. Baina bizitza luzatzeak, urte gehiago bizitzeak, arazo larria dakar. Bizi iraupena luzatzeak poztu baino, kezkatu egiten gaitu, gastu asko dakartzalako. Haur batentzat dirua gastatzea ez zaigu batere inportatzen; agure batentzat berriz, kostatzen zaigu. ○

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



### Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa  
**DEITU!**

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila



Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

# Txarriboda 2008

Urtero legez, txarriboda egin dute **Goierrin**

Txarriboda sasoia abiatzen da Sanmartinetatik aurrera eta neguan zehar txarriak hiltzen dira. Antzina, urte osoko jana ateratzen zuten bertatik. Goierriko Iberre auzoan abenduan egindako txarriboda dugu hurrengo argazkietan. Zehazki, Iberreburu baserrian egin zen aipatutako txarriboda eta argazkiak laga dizkigun Bego Aurrekoetxeak adierazi duenez, 15 bat lagun bildu ziren bertan. Baina ez da lehenengoa aldia, zeren eta Iberreburun urtero egiten baitute hori. Seguraski bapo-bapo jarriko ziren odolostea jaten.



## AHOLKULARITZA SEXOLOGIKOA ABIATUKO DU GAZTE BULEGOAK

Sopelako Gazte Informazio Bulegoak hainbat ekimen eta ikastaro antolatuko ditu 2008rako, horien artean Sexu Aholkularitza Zerbitzua eta ume eta gazteekin ari diren profesionalei (begiraleak, irakasleak, kirol begiraleak, eta abar) eskaintako ikastaroak ditugu. Horrez gain, asteburuko kirol ekintzak, multiabentura eta Bigarren Skate Jaialdia antolatuko du laster. Oinarrizko sukaldaritza, oinarrizko mekanika, antzerki eta gorputz adierazpena eta perkusioa dira Bulegoak antolatu dituen gainontzeko ikastaroak. Bestalde, Gazte Informazio Bulegoak 14 eta 30 urte bitarteko gazteek euren iritzia emateko SMS zerbitzu bat sortu du, hauen ustez ekimen interesgarriak zeintzuk diren jakiteko asmoz.

Harremanetarako: 94 406 55 19  
oij@sopelana.net

## FESTAZ BETERIKO HILABETEA DATOR

Otsailean festa garaia hasiko da, inauterietan zehazki, Aste Santua iragartzen duten jai koloretsuak emango baitio hasiera otsailari. Otsailaren 1etik 5era (barikutik martitzenera) zirkuarekin lotutako hainbat ekintza egingo dira. Ez da magiarik faltako, globoflexia eta zirku tailerrak, pailazoak eta, nola ez, moztaroen desfile ospetsua, otsailaren 3an, domekan, pilotalekuan. Santa Agedako kantuek ere tokia izango dute moztaroen artean. Otsailaren 4an, astelehena, izena eman duten taldeek herrian zehar abestuko dute, ohiko jantziakaz.

## SOPELAKO ERAKUSGELA ZEURE ESKU

Aurten ere, Udal Erakusgelak bere aretoa gura duten herritar edo elkarten esku utziko du, beren lanak ezagutaraz ditzaten.

## Sopelako toponimia

Herriko toponimia jaso eta finkatzeko beka deialdia egin du udalak



Sopelako hainbat leku izen aztertuko dituzte

**Gure** kultur ondarearen arlo garrantzitsu bat dugu toponimia, nahiz eta oraindik jaso gabe egon. Hori dela eta, Sopelako hainbat toki, baserri, iturri, mendi izen eta abar desagertu baino lehen, bertako toponimia bildu, kokatu eta aztertzea helburu duen beka deialdia egin du tokiko gobernuak. Guztira, bekaren zenbateko osoa 18.000 eurokoa izango da eta lan egiteko epea urte oso batekoa.

Aipatutako lana Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren ardurapean burutuko da Euskaltzaindiaren gidaritzapean, beraz, lana euskaraz aurkeztu

beharra dago eta laburpena, berriz, ele bitan.

Bekaren eskatzaileak halabeharrez Euskal Filologia ikasketak burututa izan behar ditu, ala Historiako ikasketak amaituta izan edo azkenengo mailan egon behar du. Eskakizun hau betez gero, *Toponimoen bilketa eta finkapena Sopelan* gaiari buruzko txostena aurkeztu behar du. Eskabideak Sopelako Udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira.

Udalak ezarritakoaren arabera, beka hau baterazina izango da beste edozein ikerketak beka edo lan finko osoagaz. ○

Xehetasun gehiago: 94 676 26 74  
www.sopelana.net

Andoni Esteban > Munarrikolanda M.T-ko presidentea

“GPS, kamera digitalak etab. erabiltzean erromantizismo apur bat kentzen zaio”



Munarrikolandako mendizaleak irteera batean

Munarrikolanda Mendi Taldeak hamar urte bete ditu daborduko, eta inoiz baino indartsuago dabil. Horren adibide dira gaur egun mendi taldeak dituen 120 bazkideak. Munarrikolandako presidente Andoni Estebanek aditzera eman digunez, taldearen izena Sopela, Berango eta Urduliz artean dagoen 257 metroko mendi batetik dator. “Tontorrean gerra zibileko “bunker” bat dago. Historiaurreko trikuharriak eta monolito bat ere ikus ditzakegi”.

Estebanek Munarrikolanda taldearen hastapenak ekarri ditu gogora: “Mendi Taldea inabazteko asmo bako kirol alkatere bat legez sortu zen; taldearen helburu nagusia Sopelako eta Uribe Kostako mendi jardueren bultzatzea eta indartzea da. Gure iritziz, mendi, baso eta naturagaz zuzeneko hartu-emonak edukiz gero, argiago eta sakonago azaltzen dira adiskidetasuna, alkartasuna, ingurumena jagoteko begirunea eta aurrekoen antzeko balioak”. Hori dela eta, kirol ekimenez gainera, Sopelako mendi taldeak ez du albo batera utzi gura taldearen jarduerari lagundu behar dieten heziketa eta prestakuntza arloak. “Mendi ikasta-

roak ematen ditugu eta beste herrialde batzuetara egindako ibilaldien proiektzioak ikusten dira; azken horren bitartez, beste kultura, herrialde eta paisaia batzuetara hurrentzeko aukera eskaintzen dugu, hau da, bizitza ulertzeko beste modu batzuk kontuan hartzeko aukera. Horrez gain, eski, eskalada, eta BTT ere egiten dugu. Sopelako jaiak aprobetxatuz, mendi jardunaldiak ere antolatu ditugu, behin baino gehiagotan”.

Estebanek aitortu duenez, “baliteke” teknologia modernoek mendizaletasuna aldatu izana; “GPS, argazki kamera digitalak etab. erabiltzean

«Herrian gero eta gehiago ezagutzen gaituzte urteak joan ahala; pozik gaude»

erromantizismo apur bat kentzen zaio, eta askotan lasterketa antza du”.

Mendi Taldearen bilakaeragaz gustura daukela dio sopeloztarrak: “bazkideen kopuruak gora egin du, txangoak gero eta luzeagoak dira, eta herrian gero eta gehiago ezagutzen gaituzte urteak joan ahala... horregatik pozarren gaude”. ○

DIDAK  
hamilton

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa  
eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
  - Eskolaz kanpoko ekintzak
    - Maila guztiak
  - Ingelesa 3 urtetik aurrera
    - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.  
Tel: 94 676 30 12  
info@didakhilton.com

4 bide  
pinturak



RIPOLIN

BONDEX

DYRUP

Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA  
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER  
DEVNA  
IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA  
Tfnoa.: 94 676 02 66  
Email.: sopela@ikastola.net

LAIKAK  
Taberna

Bentatu, 2  
48600 Sopela  
Tlf. 94 676 03 28

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,  
etxera eramaten dizugu  
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78  
T.: 94 491 27 34

## ELURRETARA JOATEKO TXANGOAN IZENA EMATEA

Otsailaren 23an (zapateria), Burgoseko Lunada herrira elurretara joateko txangoa antolatu du Kultur Etxeak. Autobusa goizeko 9etan irtengo da Berangoetako Kultur Etxetik eta 19:30ean helduko da bertara. Berangon erroldatutakoentzako prezioa 16 eurokoa izango da nagusientzat eta 14 eurokoa gazteentzat, bazkaria prezioaren barne egongo delarik. Gainontzekoek, 20 (nagusiek) edo 16 (gazteek) euro ordaindu beharko dituzte. Plaza mugatuak izango dira eta otsailaren 18a arte egongo da zabalik izena emateko epea.

## GORROTOMETROA MARTXAN

2007 urteko azken abenduan jarri zuten martxan Berangoko gazteek *Gorrotometroa* ekimena. Honen bitartez, "gazteon haserrea eta gorrotoa" neurtu eta kezkatzen dituzten gaiak jorratu nahi dituzte. Abiadura Handiko Trena, Bolognako prozesua eta espekulazioa eta etxebizitzaren arazoa izan dira orain arte landutako gaiak. Ekimenarekin jarraitu eta kale ekintza gehiago antolatuko dituzte urtean zehar.

## NAGUSIENTZAKO EKINTZAK OTSAILEAN

Otsailaren 15ean norberaren babesa eta etxeke segurtasunari buruzko hitzaldia antolatu du Nagusien Etxeak, arratsaldeko 18:00etan. Honez gain, hilaren 11n doako aholkularitza juridikoa izango da.

Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen  
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

## "Maite maitea"

Amodio gutunen **lehiaketa** eta mozorro txapelketa antolatu du Kultur Etxeak



Otsailaren 9an izango da koadrilen inauteri jaitsiera

**Zure bihotzeko** azukre koxkorrari, zein ondoan daukazu lagun minari zenbat maite duzun esateko baliabide aproposak dira gutunak. Kultur Etxeak, *Maite maitea* maitasun gutunen txapelketa antolatu du 2. urtez. Parte hartu nahi duenak otsailaren 8a arte izango du bere eskutitzak Kultur Etxera eramateko aukera. Hiru kategoria ezberdin egongo dira: 12 urte arteko umeei maitasun marrazkiak egin beharko dituzte; 13-18 urte bitarteko gazteek nahi duten teknika erabiliz parte hartu ahal izango dute (marrazkiak, eskutitzak, muntaiak...) eta azkenik, 18 urte-rik gorako gizon-emakumeek maitasun

eskutitzak idatzi beharko dituzte. Otsailaren 14an jakinaraziko dituzte irabazleen izenak, Berangoetako Kultur Etxean egingo den jaialdian. Saria, bi pertsonentzako Spa txartela izango da.

Bestalde, otsailaren 9rako koadrilen inauteri jaitsiera antolatu dute. Txapelketan parte hartzeko aukera ere egongo da, aurretik aipatutako hiru kategorietan. Arratsaldeko 6etan Kultur Etxetik abiatu eta 8etan frontoira helduko dira koadrilak eta bertan, Menta taldearen kontzertuarekin gozatu ahal izango dute. Mozorroa egiteko lantegi bereziak antolatu dituzte. ○

**Erika Yurre eta Pedro Salgado** > Anamnese erakusketa

"Txoko eta eraikin bakoitzak istorio bat gordetzen du bere baitan"



Yurre eta Salgado artistak aurrez aurre

**Anamnese** grekoko anamnesis hitzetik dator eta Platon filosofoaren erremintentiaren ideari egiten dio erreferentzia. Hori da, hain zuzen ere, Pedro Salgado portugaldarrak eta Erika Yurre plentziarrak euren erakusketarako aukeratu duten izena. Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako fakultatean lan egiten dute biek, ikerketa sailean; denbora librean, argazki kamera, papera eta ikatz-ziria poltsan harturik, eraikin eta bazterren historiaren bila abiatzen dira. Irteera hauetan bildutako materiala otsailaren 15a arte egongo da ikusgai, Plentziako Goñi Portal Kultur Etxean.

Irudiak, argazkiak eta frotaek bilduko ditu erakusketak. Azken hau gainazalen ehundura hartu eta egurraren zein igeltsuaren adina ezagutzeko aukera ematen dien teknika artistiko berezia da. Izan ere, bazterren memoria berpiztu gura dute artistek: "Txoko eta eraikin bakoitzak istorio bat gor-

detzen du bere baitan; guk egin duguna, aztarnetan beginatzea izan da". Greziako Kreta irlako Rodia herriko hainbat etxeren historia zein Gorlizko Ospitale zaharra eta Lemoizko zentral nuklearra bezalako eraikin esanguratsuen kontakizuna hurbilduko dute erakusketaren bidez: "Antzinako oroitza-penak gaur egungo memoriara ekarri ditugu irudi eta frotaen bidez". Existitzen

**«Otsailaren 15a arte egongo da erakusketa Goñi Portalen»**

diren paisaiez haratago joan gura dute artistek: "Eraikinak inaganean izan direna imajinatuz, hauen historia idatz daiteke".

Honez gain, otsailaren 1ean ospatutako inaugurazio ekitaldian sorturiko zenbait lan izango dira erakusketan. Bertara hurbildutako laguntzarekin, frotaek, irudiak eta argazkiak egin zituzten, momentuaren errepikaezintasuna gorde ahal izateko. ○



**TXIBERRI**  
edantokia  
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ  
T: 94 676 07 15

**BASTARTEA**

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128

**AJURIA**  
**TABERNA**

Andrés Cortina 2

ALGORTA



**Taberna Berri**

Sarrikobaso 4 -ALGORTA  
Tf.: 944 306 493



**VIEJO CAFE**

kopak eta  
giro jatorra

Alangobarrí, 4 Tel. 94 460 30 03  
ALGORTA

## AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

• TEKNOLOGIKOA  
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK  
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK  
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86

## OTSAILEKO TAILERRAK GOÑI PORTALEN

Plentziako kultur etxeak hainbat tailer interesgarri eskainiko ditu otsailean. Alde batetik, otsailaren 3.asterako, Emakumea eta Mitologiaren artean dagoen harremana lantzeko ekintza sorta prestatu du Begoña Ibañez barakaldarrak. 18 urtetik gorako gizon emakumeei zuzenduta dago tailer hau eta 24 orduko iraupena izango du. Otsailaren 26an, bizikleten mantentze-lanen gaineko ikastaro teoriko-praktikoa prestatu dute. Hau 12 urtetik gorako plentziarrei zuzenduta egongo da. Azkenik, otsailaren 5a arte, Mikel Garaizabalek martxoan emango duen ardo dastaketaren inguruko ikastaroen izena emateko aukera egongo da.

## GORLIZKO IRUDI KORPORATIBO BERRIA

Gorlizko Udalak irudi korporatibo berria sortu berri du. Honek ez du herriko armaria alde batera utziko; izan ere, hau erabiltzen jarraituko dute Alkatetzatik eta ekitaldi ofizialetan. Irudi berriak Gorlizko nortasuna hedatzea du helburu, herriaren ezaugarriak, baloreak eta bereizgarritasunak zabaltzea. Horretarako diseinua landu egin dute: Gorlizko badiak marrazten duen G maiuskula, itsasoak burura ekartzen duen urdin kolorea eta arre kolorea, hondartzari erreferentzia egiteko. G-a irudi nagusia izango da, baina Udalak honekin lotutako aplikazioak erabiliiko ditu. Gainera, herritarrentzat zein bisitariarentzat zuzendutako opari sorta eskuragarri jarri du Udalak. Kultur Etxean eskuratu ahal izango dira euritakoak, kamisetak eta egutegiak.

## BARRIKA

### Aldizkari berria kaleratuko du Udalak bi hilabete behin



Etxez etxe banatuko dute aldizkaria

**Informazioak** ikaragarriko garrantzia du gure gizartean. Askotan, Afganistanen edota New Yorken gertatzen denaren berri dauka, baina ez ditugu gure auzoan martxan dauden ekimenak ezagutzen. Hau gerta ez dadin, aldizkari berria martxan jarri du Barrikako Udalak. Herriak sortzen duen informazio guztia biltzea izango du helburu.

Bi hilabete behin kaleratuko dute aldizkaria eta etxez etxe banatzeaz gain, elkarte, kultur etxe, egoitza eta udal eremu guztietan aurkitu ahal izango da. Udalaren

albisteaz gain, taldeek eta herritarrek sortutakoak ere bilduko ditu, euskaraz eta gaztelaniaz. Edukiei dagokienez, kultura, kirola, elkarten atala, elkarriketak, albiste orokorrik eta Uribe Kostako Mankomunitatearen ekimenak landuko ditu, besteak beste. Ostalari, dendari eta auzoko gazte eta helduen iritziak bildu gura ditu. Barrika.net webgunearekin arituko da elkarlanean, honen osagarri bezala. Lehenengo alean, aldizkariaren izena erabakitzeke lehiaketa jarri zuten martxan. ○

# aldai

TAPIZTEGIA  
DEKORAZIOA  
ERAKUSKETA  
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32  
Tf: 460 90 31  
48990 ALGORTA

# VASA

KLIMATIZAZIO  
INGENIARITZA  
INSTALAZIOA  
MANTENIMENDUA  
Otxandategi tar Simon 114  
48640 Berango, Bizkaia  
Tel. 94 668 15 51  
Faxa. 94 66829 92  
e-mail: vasa@vasa.biz



# Urt. 31 - Ots. 15

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: [agendauk@aldizkaria.biz](mailto:agendauk@aldizkaria.biz) • Tel.: 94 491 13 37

## ERAKUSKETAK

### PLENTZIA

► **Proyecto anamense.** Pedro Salgado eta Erika Yurre. Goñi Portal. Otsailaren 1etik 15era.

### URDULIZ

► **Un Mundo de Marionetas.** Corrado Masacci. Otsailaren 11tik 23ra.

### BERANGO

► **Itsasoko argazkiak.** Mikel Cortes. Kultur etxea. Otsailaren 4tik 17ra.

### GETXO

► **Pelayoren olioak: Paisaiari buruzko bariazioak.** Erromoko erakustaretoa. Hilaren 16a arte.

► **Arte ederretako irakasleak.** Algortako erakustaretoa. Otsailaren 11tik 23ra.

► **IV. Gazta azoka.** Algortako Geltokia plaza. Otsailaren 15tik 17ra.

### LEIOA

► **Metalaren mundua Euskal Herrian.** Erakusketa aretoa. Otsailaren 4tik 29ra arte.

## MUSIKA

### LEIOA

► **Pagagnini - Yllana.** Auditorium. Otsailak 2, zapatua. 20:00. Sarrera: 10 euro.

► **JJband.** Café Ambigü. Otsailak 15, barikua. 22:00. Sarrera: 6 euro.

### BERANGO

► **Erromeria Menta taldearekin.** Kultur Etxea. Otsailak 9, zapatua. 20:00.

### SOPELA

► **Uribe Bazterra.** Herriitik. Otsailak 2, zapatua. 13:00.



### ► Inauteriak

### Kale animazioa izango da nagusi

Otsailaren 1etik 3ra bitartean, udaleko inauteriek Algortako kaleak hartuko dituzte. Musika, kaleko animazioa, haurrentzako jarduerak eta jaiak protagonista izango dira. Lehendabiziko egunean (hilak 1) gazteenak izango dira protagonista. Horrela, inauterien lehen eguna 18:00etan hasiko da karaoke batez. Jarraian, haurrentzako diskoteka egongo da, baita makillaje eta maskaren tailerrak ere. Horretaz gain, txurroak txokolateagaz ere izango dituzte. Biharamunean, eguerditik aurrera, hainbat taldek hirigunea animatuko dute. Azkeneko egunean, Turutarra fanfarrea kaleetan barrena ibiliko da. Honetaz gain, beste ekintza ugari egongo dira hiru egunetan zehar.

• **Non:** Algortan zehar • **Noiz:** Otsailaren 1etik 3ra arte.

## ZINEMA

### GETXO

► **Promesas del este.** Getxo Antzokia. Otsailak 6, eguztana. 19:30. Sarrera 2,90 euro.

► **Zodiac.** Getxo Antzokia. Otsailak 13, domeka. 19:30. Sarrera 2,90 euro.

► **Fuera de juego.** Getxo Antzokia. Otsailak 15, domeka. 22:00. Sarrera 2,90 euro.

### BERANGO

► **Zinegoak: Present perfect, La carta del amigo eta No magic blues.** Berangoeta. Otsailak 1, barikua. 20:00.

### URDULIZ

► **Cuando menos te lo esperas.** Polikiroldegia. Otsailak 8, barikua. 19:30. Sarrera: 2 euro.

► **Alvin y las ardillas.** Polikiroldegia. Otsailak 9, zapatua. 19:30. Sarrera: 2 euro.

### LEIOA

► **Michael Clayton.** Auditorium. Otsailak 9, zapatua. 20:00. Sarrera: 4 euro.

## ANTZERKIA

### SOPELA

► **Magia gaua: Carlos eta Anaren showa.** Frontoia. Otsailak 1, barikua. 21:00.

## BESTEAK

### GETXO

► **"La cebra Camila" ipuina.** La Gusana liburudenda. Otsailak 2, zapatua. 12:30.

► **XXII. Agate Deuna koru jaialdia.** Areetako Eskoletako plaza eta Algortako Geltokia plaza. 18:00etan eta 20:00etan.

► **Pirritx eta Porrotx.** Getxo Antzokia. Otsailak 16, zapatua. 16:30. Sarrera: 3,50 euro.

► **"El trasero del rey" ipuina.** La Gusana liburudenda. Otsailak 16, zapatua. 12:30.

### BERANGO

► **Mozorro lehiaketa.** Kultur etxea. Otsailak 8, zapatua. 18:00.

### SOPELA

► **Patxin eta Potxin pailazoak.** Frontoia. Otsailak 2, zapatua. 18:00.

► **Mozorro desfilea.** Otsailak 3, barikua. 18:00.

► **IV. Gutun lehiaketa.** Hall kulturala. Otsailak 14, eguena. 19:00.

### PLENTZIA



► **Mendi iteera Sollubera (686m).** Goñi Portal. Otsailak 10, domeka. 9:00.

► **Umeentzako jolasak.** Goñi Portal. Otsaila osoan zehar. 16:30.



# ADITUAK GARA PINTXO ETA BOKATA BEROETAN!!!!



BASAGOITI ETORBIDEA 51  
ALGORTA



## Kirolaren gala

Urte hasieran ospatu zen "Getxo Sasoi-sasoian" I. Kirolaren Gala, aurten hurrengo kirolariak saritzeko asmoz: Yahaira Agirre judoka, Yera Campos tenislaria, Jaime Bergareche padel jokalaria, Ibon Garate pala jokalaria, Getxo Futbol Taldeko gazteak, Getxo Igeriketaren errelebo taldea (I. Arregi, M. Bidosola, B. Elorriaga, A. Mustafic, E. Isuskiza eta J. Bacigalupe), Porfirio Hernandez mahaitenislaria, Manuel Martínez "Manolin" Athleticeko eta Real Madrideko jokalaria ohia, Pepin Lopez Jolasetako entrenatzailea, Getxo Saskibaloitzaile Taldea eta Pedro Guzman Galea Futbol Elkarteko sortzailea.

Argazkiak: J. M. Martinez "Bubu"





## Harea

Garai batean, besteak beste, Ereaga hondartzaren haregaz egiten ziren herriko lanak. Horren lekuko duzue 1953ko argazki zaharra, kamioia ere uretara sartzen zen itsasoari harea lapurtzeko. Gaur egun bere gainean etzateko bakarrik darabilguna, garai batean lanerako baliabide izan zen. Eta hareak akordura ekarri digu Atxagaren poema hura ere, hona olerkiaren zatitxo bat: *"Harea lurrik anonimoena / Hareaz eginak desparadisuaeren zutabeak"*.

[berbetan]

Sentimenduak, emozioak, tentsioa, indarra, grina, goxotasuna, umorea... gora eta behera. Emakumeen hormonei buruz dihardu Natalia Monge dantzari getxoztarrak azkenengo obran; *Lilas* urtarilean aurkeztu berri du Kultur Leioan, Organik bere dantza taldearekin. Berak zuzendu du ikuskizuna eta elkarrizketa egunean entseguak bukatzen zebilen, aurkezpenerako astebete falta zela. Oraindik lasai zebilen, lana ondo lotuta utzi zuelako. Atsedean hartzeko tartea ere izan zuten berak eta ikuskizunean parte hartzen duten dantzariak: Helena Golab, Pilar Andres eta Izaskun Santamariak. Bizitzeko lan baino, bizitza du dantza; dantza garaikidea.

# Natalia Monge

## Dantzan ere, emakumea

Testua: **Zuberoa Iturburu** / Argazkia: **J.M. Martinez "Bubu"**

—*Lilas* ikuskizunaren entseguak bukatu berri dituzue.

—Bai, azkenean bi egun libre izan ditugu, eta hori oso arraroa da lanbide honetan, normalean, estreinaldi baten aurreko astea oso mugitua izaten baita. Baina azken entseguan argiekin frogak egin ondoren oso pozik geratu nintzen eta azken bi egunak libre hartzea erabaki nuen. Datorren astean berriz, egun osoa emango dugu ikuskizuna prestatzen Leioako Kultur Etxean, bertan egingo baitugu lehen saioa 25ean.

—**Zer moduz joan da muntatze prozesua?**

—Oso ondo, ni oso pozik nago. Estreinaldiaren aurreko astea iritsi eta prest edukitzea poztekoa da. Hiru hilabete eman ditugu prestaketan.

—**Zertan datza?**

—Lehenik eta behin, argitu nahi dut *Lilas* izenburua jarri diodala, baina frantsesezko hitza aukeratu dudala. Lila kolorea aukeratu dut batetik, feminismoaren kolorea delako, nahiz eta horrek ez duen esan nahi feminismoaren aldeko pieza bat dela. Bai

ordea, hasieratik, bost emakume egon garelako sortze prozesuan sartuta. Interpretak hirurak dira emakumeak, musikaria eta zuzendaria, ni neu, emakumeak gara. Pieza honetan emakumeen hormonei buruz hitz egiten dugu.

—**Emakumeen aroci buruz?**

—Ez da guztiz zuzena hori. Aroren bat ukitzen dut, baina mamia hormonak dira. Haiei buruz hitz egiten, beste hainbat gauza atera ziren beranduago. Adibidez, haurdunaldia eta menopausia. Nahi barik, imajinatuz atera ziren. Beno, ez dauka helburu hori, baina interprete bakoitza garai

**“Klitxe batzuk ere agertzen dira *Lilas* lanean, emakume “diba”-rena eta emakume objektuarena, adibidez”**

batekin identifikatu beharko banu, Izaskunek nerabe papera egiten duela esango nuke, borrokan dabil, izaera gogorragoa duelako. Bestetik oso goxoa da, baina beste dantzariak ez duten kemena dauka. Pilar bestalde, haurdun ikusten

du. Beno, haurdun eszena batean bakarrik agertzen da, triparekin. Halere, ez du bere burua oraindik haurdun ikusten. Eta Helenak menopausia aroan dagoen emakumea irudikatzen du. Baina hasiera puntua ez ziren aldi horiek izan, emakumeen hormonak baizik. Gehienbat hormonei eta hilerokoari buruz mintzo gara lan honetan, batzuetan ere zelan eragiten digun, minberak garela, nola moldatzen garen... Eta aldaketa bortitzak ematen ditugu bat-batean. Horiekin batera beste alde batzuk agertuko dira. Adibidez, klitxe batzuk, emakume “diba”-rena, emakume


objektuarena eta horrelakoak. Horregatik ere, musika gehiena frantsesez izan da sortze prozesuan eta izenburua ere frantsesez dago. Bestalde, kontraste bila umorea bilatu dut.

—**Organik-en ezaugarri bat al da hori?**









ROCHHA FAVELA BY NIGHT

## Faveletako dantza

Funk dantza Rio de Janeiroko faveletan sortu zen 80ko hamarkadaren bukaeran. Jende guztia rap kariokaren erritmoan mugiarazten duen dantza honen erretratua da *Rio baile funk*. Rioko estatuan 300 eta 500 dantzaldi artean antolatzen dira astero eta horietako bakoitzean 500-10.000 funkzale biltzen dira. Kultur mugimendu honek klase sozial desberdinetako milaka gazte erakartzen ditu astebururo. Rio de Janeiron bertan bizi den Vincent Rosenblatt frantziarra da GETXOPHOTO ikusi ahal izan zen lan honen egilea.

Argazkiak: **Vincent Rosenblatt**



BAILE DO ANDARAÍ



BAILE DA EQUIPE FRAÇÃO TSUNAMI



BAILE DE AUSTIN




BAILE DA CURTISOMRIO




BAILE DE AUSTIN




MC GORILA



BONDE DOS PERVERSOS



BAILE DO BOQUERÃO



BAILE DO BOQUEIRÃO



BAILE DO CASTELO DAS PEDRAS



MORRO DOS PRAZERES



BAILE DO CANTAGALO

I

# Iñaki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER  
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 T: 430 23 45  
Telletxe 1 T: 460 27 41

Algorta

**OSABIDE HORTZ KLINIKA**  
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, behe eskuina  
ALGORTA  
94 430 76 96

## Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

# GAVRKO

GIZONENTZAKO MODA

Telletxe 5  
ALGORTA  
T: 4607084

## María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA


Alangobarri 10  
T: 4910821  
ALGORTA

HARTU TXANDA

[zinema]

## Bidaiatzearen zergatia

*Munduari mundo* film dokumentalaren eta bidaia-liburuaren egitasmoa martxan da



Egitasmoaren jarraipena egiteko blog bat sortu dute: [www.munduarimundo.com](http://www.munduarimundo.com)

**Bidaiatzearen** zergatiaren bila abiatu dira hiru gasteiztar: Ander Elorza, Jon Urdangarin eta Joseba Elorza. Bilaketa horretarako hiru bide aukeratu dituztela esan daiteke: literatura, zinea eta sarea. Iñaki "Albitxuri" (fikziozko pertsonaia) *Munduari bira eman dio munduak* bidaia-liburua idazten hasi eta aspaldiko proiektu horri ekinez Australiara bidaiatzea erabakitzen du. "Albitxuri" ren itzalean Bartzelonako C.E.C.Cen zinema ikasketak egin zituen Ander Elorza euskal filologoa ostentzen dela esan liteke. Hiru gasteiztarren egitasmoa hortik hasten da eta hurrengo pausoa Iñakiren bidaia horren eta liburuaren nondik norakoak filmatzea da *Munduari Mundo* dokumentala ekoizteko asmoz. Horretarako, Ander Elorzak eta Jon Urdangarin argazkilariak Australiara bidaiatu zuten Iñakiren pausoei segika. Egitasmoaren muinean, bai liburuarenean bai dokumentalarenean, hurrengo galderaren erantzuna(k) bilatzeko asmoa dago: "zerk garamatza, zerk bultzatzen gaitu bidaiatzeraz?". Hala, erantzuna(k) aurkitzeko helburuagaz

bidean ezagututako bidaiariak elkarrizketatuko dituzte, eta hortik erneko dira liburu eta filma. Iragan urteko urrian abiatu ziren Urdangarin eta Elorza Australiara, eta handik lehenengoak etxerako (Gasteiz) bidea hartu zuen eta Elorza Japoniarantz abiatu zen. "Printzipioz, filmaren bukaera Japonian filmatu nahi nuen; baina ez nuke nahi egitasmoa itxi, eta beste herrialde batera bidaiatzeko aukera bat-batean agertzen bada?" adierazi zuen Elorzak. Gasteiz aldean zerbait filmatzeko asmoa ere badute.


### «Hiru gasteiztar bidaiatzearen zergatiaren bila; literatura, zinea eta sarea bitarteko»

Azkenik, Gasteiztik bertatik, sareari lotuta, propio sortutako blogaren bitartez, egitasmoaren berri egunerokotasun handiz emateaz arduratu da Joseba Elorza. Filma non eta noiz egongo den ikusgai, momentuz, "bidaia luzea" da... ○

[musika]

## Musika paperean

### Morrissey eta Elliot Murphy musikarien biografiek osatu berri dute Bosgarren Haria



Argazkian, Morrissey abeslaria. Informazio gehiago: [www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)

**Gaztelupeko Hotsak** zigiluak Bosgarren Haria bilduma ipini zuen martxan orain dela urte pare bat, "gure ondare sonoroa diren kantari eta taldeei buruzko liburuak" argitaratzeko helburuagaz. Geroztik zazpi bat lan plaza-ratu dituzte eta urte hasieragaz batera bilduma osatzen jarraitzen duten beste bi liburu kalean dira dagoeneko: *Elliot Murphy, Amerikarra Parisen* eta *Morrissey (& Smiths). Hildakoa izango naiz famatua!* Murphyren gaineko liburu Joseba Martin musika kritikari eta irrati esatariak idatzi du. Martinek jakinarazi duenez, argitaratzen den Murphyri buruzko

lehenengo biografia liburua da eta "euskaraz idatzita dago". Euskal Herriarekin lotura estu eta sendoa duen rock musikaria da Murphy eta orain dela gutxi eskaini ditu kontzertu batzuk Leioa, Bilbo eta Galdakaon.

Morrissey *sinbolo, ikono, mitoaren* gaineko liburu Jorge Gil Munarriz gidolariak idatzi du eta dioenez, "haren aurpegi ezezaguna" azaleratu gura izan du. Liburu bi zatitan bana daitekeela esan du Gilek: lehenengoak, oro har, The Smiths taldeko abeslari izan zeneko garaia islatzen du eta bigarrena, haren ibilbidearen gaineko gogoetek osatzen dute. ○

### diskoak

**Enigma**  
ill niño  
Cement Shoes Records



*Enigma* dugu ill niñoren azkeneko diska. Metal berria uztartzen duen taldearen diska hau aurreko lau disken jarraipena dela esan daiteke: *new metal* eta erritmo latinoen konbinazioa. Cristian Machadoren taldeak asko du esateko oraindik ere, AEBetako gaur egungo talde esanguratsuena bihurtuz.

**SKA Republic concert**  
Skalariak  
Elkar



600 kontzertu eta zuzeneko 10 urteren ostean, Skalariak taldeak epe bat amaitu du. Joan den urriaren 20an Bartzelonan egindako kontzertuaren ondoren, *Klub-Street-Ghetto* trilogiarekin hasi eta *Luz Rebeldek* jarraitu zion aldiari amaiera eman zion. Nazioarteko ibilbide sakon hau euren zuzeneko diskoan islatzen da.

**El imperio del mal**  
Non Servium  
Potencial Hardcore



Bazen garaia Mostoleseko talde ospetsuak diska berria atera zezan. Disko honetan ere, hardcore eta oi! estiloak nahasten dira; hala ere, hardcore ikutu gehiago dauka. M-11ren inguruko *Lágrimas de Sangre* abesti polemikoa bezalako kantak aurki ditzakegu, edo hain ezaguna den *Ratas de ciudad* abestiaren bigarren zatia. ○

Getxoko Andra Mari  
Gasolindegia

Etxera  
eroaten dizugu  
**gasoleoa**

Txartel hau aurkezten  
baduzu 3 euroko  
deskontua edukiko duzu  
zure eskarian

Getxo eta Berango artean  
Tel: 94 430 15 00

etorri  
eta  
ikus!!

**ORIXA**

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)  
Tfn.: 94 491 23 79  
Algorta

**BASALBO BASERRIA**

**JATETXEA**

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18  
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserrria@yahoo.com

[liburuak]

## Antologiak

**Euskal poesiaren** bi antologia kaleratu berri dira, bata ingelesez eta bestea eslovenieraz

**Antologiak**, zelan edo hala, aukeraketak izaten dira, zerbaiten lagin bat. Aukeratzaileren irizpideen arabera garai, geografia, genero, talde... baten ordezkariak izan litezkeenak hautatzen dira. Hala bada, batzuetan antologiak hizkuntza bateko irakurleek hizkuntza horretako idazleak ezagutzeko lehenengo sarrera izan daitezke, beste batzuetan, beste hizkuntza bateko idazle, irakurle eta abarrentzat herrialde eta hizkuntza jakin bateko literaturarako sarbideak dira. Azken helburu horregaz kaleratu dira oraintsu bi antologia, kasu honetan, euskal poeten ingurukoak

**«Euskal poeten antologiez gain, besteak beste, euskal ipuinenak ere itzuli dira»**

biak: *Branil bom očetovo hiso. Antologija moderne baskovske poezije* (Nire aitaren etxea. Euskal poesia modernoaren antologia; Aleph, 2007) eta *Six Basque Poets* (Arc Editions, 2008). Eslovenierako antologia Ciril Bergles poeta eta itzultzaileak antondu du eta berak egin ditu 23 euskal poeta garaikideren itzulpenak ere; poeten artean honakoak daude: Mirande, Lekuona, Gandiaga, Aresti, M. Lasa, Lete, A. Lasa, Atxaga, Izagirre, Igerabide, Sarrionandia, A. Iturbide, Linazasoro, I. Aranbarri, G. Markuleta, K. Uribe, H. Cano... Ingeles-



Mari Jose Olaziregi

ezko antologia EHUko irakasle Mari Jose Olaziregik atondu du eta Amaia Garbantxo izan da itzultzailea. Antologia honetarako aukeraturako sei poeta garaikideak hauexek dira: R. Arregi, B. Atxaga, F. Juaristi, M. A. Meabe, K. Uribe eta J. Sarrionandia.

Bestalde, badira orain dela pare bat urte argitaratutako bi antologia irakurleari interesgarri gerta dakizkiokeenak: *Mende berrinako ipuinak* (M. J. Olaziregi, Erein), oro har, 90. hamarkadako 14 euskarazko ipuinez osatua, ingelesera itzulita ere kaleratu zena (*An Anthology of Basque short stories*), eta gaztelarrera itzulitako hainbat euskal ipuin garaikideren *Pintxos. Nuevos cuentos vascos* (Lengua de trapo). ○

liburuak



**Bela kabeletik Ternuara**  
Xabier Etxaniz Erle  
Pamiela

Bernardo Atxaga idazlearen obra barruan Haur eta Gazte literaturak izan duen eboluzioa eta eragina aztertzen dira saiakera honetan. Asteasuko idazleak haur eta helduentzako obrak tartekatzen ditu. Hasieran idazleak bere obrari buruz hitz egiten du eta amaieran, obrak idazleari buruz.



**Elurra ezin da erosi**  
Gari Berasaluze  
Txalaparta

Postaletan ezin ederragoa agertzen den herri horietakoa da Kaiomendi. Azken urteotan, ordea, zuhaitzak moztu eta kablez bete dituzte mendiak, burdinazko dorre handiak batera, elurragaz iristen diren eskiatzaileak ibil daitezten. Gazte literaturako narrazioa da Berasaluzeren liburua.

[kirola]

## Igeriketa bultzatzea helburu

**Sopelako MUS** taldeak herri-txapelketa arrakastatsua antolatu du berriro bere



Sopelako igeriketa herri-txapelketako antolatzaileak

**Laugarren** urtez jarraian antolatu du Sopelako Moreaga Ugerzaleak (MUS) igeriketa taldeak herri-txapelketa. Sariketa urtariraren 13an egin zen Sopelako ugerlekue-tan eta bai antolaketaren aldetik eta baita partaide kopuruaren aldetik ere arrakastatsua izan zen ekitaldia.

Herri-txapelketa antolatzeko helburua, ohi legez, igeriketa sustatzea eta bultzatzea izan zen, horrenbestez, norgehiagoka bat baino parte hartzea zen garrantzitsuena. Hala, Bizkaiko hainbat herritako igeriketa elkarteetatik heldutako igerilariak batu ziren Sopelan, eta horiez gainera, ondo pasatzeri eta parte hartzeri hurbildutako herritarrak ere asko izan ziren. Iaz baino ehun bat partaide gehiago izan zirela jakinarazi dute antolatzaileek; pasa den urteko herri-txapelketan 311 lagunek egin zuten uger eta aurten gutxi gorabehera 420 igerilarik egin dute bat igeriketa bultzatzeko ekimen honeguz. Uribe Kostako parte hartzaileez gainera, besteak beste, Ondarroatik eta Lekeitiotik etorritako kirolariak ere izan ziren Sopelan.

Txapelketan jarduteko adin muga oso zabala izan zen, 4 urtetatik 83 urte bitartekoa, hain zuzen. Izan ere, adin tartearen eta sexuaren arabera maila desberdinetan lehiatu ziren igerilariak eta azkarrenak nortzuk izan ziren jakiteko MUS taldearen web orrialdera jotzea besterik ez duzue egin behar.

Horrez gainera, partaide guztiak sariren bat jaso zutela ezin da aipatu barik utzi: kamisetak,

**«Pasa den urtean baino 100 pertsona gehiagok parte hartu du aurten»**

«eskupainuak», motxilak etab. banatu zituzten eta antolatzaileek. Dibertimendurako puzgarri, jostailu etab. ere ipini zituzten uraren gainean.

Hala, beste behin, MUSekoek uger egitera animatu zituzten herritarrak eta igerilariak; uger egitea, hori zelako helburu nagusia, eta giro alaiari ondo pasatzea ere bai, eta hori ere bete zuten. Horrenbestez, aurtengoa pasa da dagoeneko, baina igeriketaz gozatu gura duenak badaki non duen hitzordua. ○

Informazio gehiago: [www.musopelana.com](http://www.musopelana.com)

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

**Kantxa Kizol moda**



**350 M<sup>2</sup>**  
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO  
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA  
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

**Lacorfris S.L.** SERVITEC

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

Zure publikitatea hemen  
Zure publikitatea hemen  
Zure publikitatea hemen

94 491 13 37

**Aizkoa Olabarrieta** > Kontalariak Elkarteko kidea

“Ipuinak ez dira bakarrik umeentzat egiten diren kontaketak”



Aizkoa Olabarrieta

**Urtarrilaren azkeneko asteburuan Ipuin Kontalarien Topaketak burutu ziren Hondarrribian. Bertan, ipuinak kontatzeko manifestu bat landu zuten. Topaketen harira, Kontalariak Elkarte sortu zen abenduaren bukaeran, batik bat, hego Euskal Herriko kontalariak biltzen dituen. Elkarteko kide den Aizkoa Olabarrietak azaldu duenez, Elkartearen beharizana zegoen kontalarien lana oso norberarena baita.**

—Zer da Kontalariak Elkarte?

—Euskal Herriko ipuin kontalariak biltzen dituen elkarte. Batez ere Bizkaikoak, Gipuzkoakoak eta Arabakoak gaude bertan; nafarren bat ere badago, eta iparraldeko pare bategaz sikieran kontaktuan gaude. Momentu honetan, 30etik gora gaude. Elkarte moduan orain dela gutxi sortu da, abenduaren bukaeran bukatu ditugu tramitazio guztiak. Helburuari dagokionez, indarrak metatzea eta gure artean ezagutzea da. Kontuan izan behar dugu ipuin kontalarion lana oso norberarena dela; bai, baduzu jendeagaz harremanen bat, baina ez da erraza

besteakaz kontaktuan jartzea ez bazara kontalarion jaialdietara joaten. Internet oso tresna baliagarria izan da guretzat, gure artean ezagutzeko aukera eman digu, nahiz eta batzuk lehendik ezagunak ginen. Ez da kasualitatea Elkarte orain sortzea, elkarte batek duen izaerari esker Hondarrribian ospatu den Topaketa askoz hobeto antolatu dugu eta.

—Zein motatako ipuinak kontatzen dituzue?

—Denetarik dago: normalean, jende gehienak publiko klase desberdinetzat egiten dugu lan. Baina gero, bakoitzak baditu bere preferentziak. Nik adibidez, umei kontatzea

gustuko dut; beste batek nahiago ditu helduak; beste bati gustatzen zaio nerabeei edo gaztetxoei kontatzea... Baina orokorrean, gehienok helduentzako ere kontatzen dugu. Ipuinak ez dira bakarrik umeentzako egiten diren kontaketak.

—Kideok leku askotakoak izanik, nola elkartzaren zere?

—Leku ezberdinetan. Batu izan gara Durangon, Bergaran, Oleretan... orain arte lokal finkorik ez dugunez, ahalegintzen gara beti berberak ez izaten mugitzen direnak. Apur bat aldakorra egin dugu orain arte bileren kontua.

**«Indarrak metatzea eta gure artean ezagutzea da Elkartearen xedea»**

—Nola bilatzen duzue emozioa?

—Buff! Ez da galdera erraza hori, ez. Bakoitzak bere modua dauka, eta bakoitzak bere helburuak ditu. Topaketa hauetan, esaterako, ipuinak kontatzeko manifestu bat landuko dugu. Bertan gutxieneko baldintzak finkatuko ditugu.

—Zeintzuk dira gutxieneko baldintza horiek?

—Denetarik. Alde filosofikoa dauka, egoitzari buruzko baldintzak ere bai, kopuruak, adinak desberdintzea, leku aproposa izatea... oinarritzako kontuak.

—Lehen Ipuin Kontalarien Topaketaz aritu zara...

—Bai. Topaketa hauek urtarrilaren 25 eta 26 bitartean ospatu ziren eta estatu mailakoak izan dira. Aurten guk hartu dugu topaketak antolatzeko ardura. Orain dela lau urtetik hona urtero ospatzen dira Ipuin Kontalarien Topaketa hauek. Barne topaketa da eta bertan ez dugu kontaketarik egiten. Leku askotatik datoz: Valentziatik, Kataluniatik, Madrildik, Aragoitik... Guztira 140! ○

Zarrageta  
Kandela  
Leioako  
Leku-Izenak  
Elexalde  
Iñaurratza

*Etor zaitetz eta parte hartu, zuk ere baduzu zer esan!*

ERAKUSKETAK	HITZALDIAK
17:00etatik-20:00etara	20:00etan
<b>KULTUR LEIOAN LAMIAKOKO ADINEKOEN ETXEAN PINUETAKO KULTUR ETXEAN</b>	Otsailaren 19tik-22ra Otsailaren 26tik-29ra Martxoaren 4tik-7ra



# 'Kao: sumendiko sekretua' bideojokoa zozketatzen dugu



KAO ordenagailuan erabiltzekoa da, **10 urtetik gorako** gaztetxoentzat

Zelan parte hartu zozketan?

Oso erraz, bidali e-mail bat [uk@aldizkaria.biz](mailto:uk@aldizkaria.biz) helbidera, subjectean KAO idatzi eta zozketan hartuko duzu parte.

Aurreko zozketaren irabazlea: **Eneko Perez Villanueva\***

\* Saria jasotzeko UKren bulegora goizez deitu: 94 491 13 37

proba ezazu KAO  
[www.elhuyar.org/kao](http://www.elhuyar.org/kao) wegunean



[nora]joan]

## Armonia begetarianoa

Aukera asko haragi eta arrain barik



Javier Calzada jantokian

**Hamar urte** bete zituen 2007an Algortako erdigunean dagoen Armonia begetarianoak. Barazkijaleez gain, gauza berriak dastatu nahi dituen jende asko hurbildu da denbora honetan. "Barazkijaleak %2 dina bakarrik. Gainontzekoak, jende gaztea, bikoteak eta langileak izaten dira. Gustuko dut hauen iritziak entzutea, aurreiritzi finko barik etortzen den jendea baita." esan digu Javier Calzadak, jatetxeko arduradunak. Bera ez da barazkijalea, etorkizun batean izango dela uste badu ere. Hala ere, elikadura eta osasun kontuetan esperientzia dauka, kirol munduan ibili baita denbora luzez.

Askok sinesten ez badute ere, hainbat plater ezberdin diseina daitezke haragia eta arraina erabili barik. Lekaleak, zerealak eta pasta dira erabilitako osagaietako batzuk:

"Entsaladekin jolastea gogoko dut". Berenjena eskalopea, hostopila labean, kux-kuxa... aukera zabala da. Azken burukoetan indar berezia egiten dute: "Bezera-ak kalera eramaten duen azken sentsazioa postrea da eta, horregatik, garrantzi handia dauka guretzat. Ogi-tornadak eta zereal pudinga dira gehien eskatzen dizkigutenak". Lehengai biologikoak erabiltzen saiatzen dira beti: "Zerealak, lekaleak... zaporean asko nabaritzen da. Sagardo biologikoa ere ematen hasi gara".

Astelehenetik zapatuta dago zabalik Armonia begetarianoa, baina asteburuetan bakarrik ematen dituzte afariak. Gainera, janaria etxera eramateko aukera dago. ○

Algortako Etorbidea 100, Algorta  
Tel.: 94 460 17 62

**KONTXI**  
ZUAZUBISKAR  
URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA  
T.: 94 491 02 93

**GOZOLABEA**  
GALDARETXE

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25  
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29  
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58  
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14  
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

**ARTAZA ETXEA**  
JATETXEA  
• gozariak  
• txuletoia • makailua  
• arrain freskuak

asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz

Erreserbak: 94 463 03 92

Artaza Etxea Eraikina, Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

**JUAN-MARI**



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25  
**AREETA**

**Asador Goiezi**



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gaez dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak zure gustura prestatzen ditugu.

Aretxondo 14  
Algortako Portu Zaharra / Getxo  
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA  
Arriluze z/g • Tel. & Fax: 94 491 53 21  
ALGORTA • GETXO

## BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikbasoerikin bat)  
T: 94 430 69 42 /ALGORTA

## GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa"

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarrieriak

Orduña Mendatea 1      Telletxe 13  
T: 430 22 13              T: 460 02 88  
GETXO                      ALGORTA

## Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO      KIMETZ GARATE AZURMENDI  
Neguriko Etorbidea 9      Aingeruaren etorb. 4B  
T: 491 14 87                  (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87  
48990 NEGURI                  48990 GETXO

## TXIKI-AUNDI KAFETEGIA

ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik  
onenak ditugu  
etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

CAFE  
usategi  
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

[horoskopoa]

### URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)  
Zure herria faltan botatzen duzu kanpoan zaudenean. Bolada luzeak ematen dituzu atzerrian eta herriminak jota zaude. Ez larritu, bere jaioterrira itzuli ezin den jende pilo dago-eta; ikusi bestela, sahararriak, palestinarak...

### AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)  
Zorionak! Lana lortu duzu azkenean! Orain zure ametsak bete ahal izango dituzu. Afrikara bidaiatzea dela? Aurrera! Aukera hauek ez dira birritan ematen, ez utzi ihes egiten. Denbora izango duzu itota ibiltzeko!

### GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)  
Erabaki gatsa da oraingoan hartu behar duzuna. Lan hau edo bestea? Bataren soldata hobea da, baina bestearen ordutegia oso ona da gero... Burmuinari hainbeste buelta eman ondoren zorabiatuta amaituko duzu.

### META



(Irailak 17 urriak 16)  
Gauetan ez duzu lorik egiten, kaleko zarata izugarria da-eta. Goizeko 4:00etan itzartu eta armairuan sartzeko gogoa pizten zaizu. Mendi puntara oporetan joatea aukera ona da; han, behintzat, mosoloen uluak bakarrik entzungo zenituzke!

### OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)  
Sukaldean aritzen ez dakizula uste dute batzuek... Egia al da? Horrela bada, ikastaro bat egin beharko duzu, urte bi daramatzazu-eta zure kabuz bizitzen! Zer jaten duzu? Egutero txinatarrean afaletza ez da sanao...

### HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)  
Barkamena eskatzea batzuetan ez da nahikoa izaten. Etorkizunean erakutsi behar duzu zure jarrera zein den eta zure akatsa oraindu. Egin duzun mina oso handia izan al da? Kostako zaizu orduan...

### LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)  
Galduta sentitzen zara eta ez dakizu zure bizitzagaz zer egin. Gaztea zara oraindik, nagusien munduan noraezen dabilen gaztea. Gainera, inork ezin dizu bidea zein den erakutsi. Ez da zilegia, baina horrela da...

### HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)  
Deituko zizula esan zizun, baina ezin zaitzake zure bizitza osoan horretan pentsatzen egon. Ez du ematen pertsona horrek interesa erakusten duenik, beraz, zertarako denbora galdu? Gauza interesgarriagoak dituzu egiteko...

### ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)  
Orain behar gogor eginez gero, emaitzak ikusiko dituzu laster. Hasierak ez dira errazak izaten, baina horrela dabilza hasiberri guztiak. Ikasi ahal duzun beste eta daukazun guztia eman. Nagusiek kontuan hartuko dute!

### EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)  
Dantzatzen ze trebea zaren erakusteko aukera izango duzu zapatuan. Dotore jantzi eta irten zaitetz pista! Saturday Night Feverko protagonista ematen duzu. Bikoteak behar al duzu? Jende asko prest dago...

### IRATZEA




(Abuztuak 18 irailak 16)  
Hurrengo astebururako planak egiten hasi zara? Oraindik ez? Kanpinean joan zaitzake, musoak bisitatu, zuretzat ezagunak ez diren txokoak deskubritu... Hamaika aukera daude! Euskal Herria oso txikia da, baina gauza asko eskaintzen ditu.

### NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)  
Hainbeste urtean kirolik egin gabe eta orain, bat-batean, mendi guztiak igo, erreka guztiak zeharkatu eta lasterketa guztiak korritu gura dituzu. Zoratu egin zara ala? Gorputza zaintzea ona da baina...



## MUNGI<sup>IA</sup> OKINDEGI<sup>IA</sup>



Algortan badaukagu  
artisaunen ogia  
izen eta jatorriz  
da "ogi mungia".


Goizero lortzen dogu  
obispoen guleria  
probatu bada edo ez  
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76  
ALGORTA

denborapasa

**LUMA aldizkariaren eskutik**

**HITZ GURUTZATUAK**



**Ezker eskuin**

1. Tekniken eta jakintzen aplikazioa. 2. Lurrean jaso. Atzizkia. 3. Iri-  
nez estali edo hautsezatu. 4. Egilea adierazten duen atzizkia.  
Aterak. 5. Aita, erlijio ordenetan. Elefanteen letaginen gai leun,  
gogor eta zurixka. Bokala. 6. Germanioaren ikurra. Mirespenez  
begietsi. 7. Bilo. Bostehun. Bakun. 8. Nahi ez izatea. Letra grekoa.  
9. Jalgi. Beldur handia. 10. (Errep.) Txori mota. Egintza, egitea.  
Potasioaren ikurra.

**Goitik behera**

1. Teilak lantzen dituztenak. 2. Ol-  
darta, aurka altxatu. 3. Portu.  
Bokala. Lixiba. 4. (Haur hizkeran)  
Haur txiki. Mila. Garoa, iratzea. 5.  
Makurbideak, okertzeko bideak. 6.  
Erlearen antzeko intsektu. Abede-  
rako azken letra. Kontsonantea. 7.  
Oxigenoaren ikurra. Telebistako  
saio. 8. Arroka mota. Azken eta  
lehen letrak. 9. Letra grekoa. An-  
geluen funtzio trigonometriko. 10.  
Bokala. Kortak, heiak.

**Soluzioak**



asmatu eta irabazi > **ARGIA** astekariaren opariak



Nor da?

- Aurten ospatuko da bere jaiotzarean 100. urteurrena
- Eztabaidazale amorratua
- XX. mendeko euskal artistarik esanguratsuenetarikoa

> Aurrekoaren erantzuna: **Gari**  
> Irabazlea: **Maidar Perez\***

\*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean  
bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo  
uk@aldizkaria.biz

•Argia astekariaren hiru  
hilabeteko harpidetza doan



• Freexkue  
liburua

www.argia.com

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?



Etxebizitarako igogailuak  
Eskailera igogailuak  
Plataformak



Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz



Bittor Egurrola

**Astraburuko "Atxaxpe G.E.A.M.", 1956**

Horrela deitzen zen Astrabuduko mendi taldea, 1956an sortua, hasierako urteetan. Taldea federatzeko orduko "Federación Española de Montañismo" ren barruan, oso bitxia da G.E.A.M. letren egindako itzulpena: "Grupo Excursionista Artístico Montañero", benetako esanahia, ordea hauxe zen: "Gora Euskadi Askatuta Mendigoizalea". Kontuan hartu behar da diktadura frankistaren garaia zela.

Argazkian agertzen direnak (Galdos izan ezik), "Atxaxpe" k izan zituen lehenengo batzordeko kideak izan ziren; guztira hamabi kidek osatzen zuten batzordea. Dena dela, Galdos ez zebilen oso urrun; laguntzailea zen.


Interesgarria da mendirako erabiltzen ziren jantziak ikustea: txapela, kaikua, mahoizko prakak, artilezko galtzerdi zuriak, abarkak...

**Argazkian:** Juan Mari Agirre, Jon Barrondo, Josetxu Zubillaga, Galdos, Felix Linares.

ALEX SARDUI > Abeslaria

# “Nire ametsetako bat trankil bizitzea da”

Testua: **Ander P. Goikoetxea**



**Defini ezazu zeure burua.**

Abeslaria.

**Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?**

Ez dakit zein filmetan, baina ez nintzateke ona izango seguru.

**Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?**

Jende asko dago... bat esatearren, Nafarroako Erregea, adibidez.

**Ohitura txarren bat al daukazu?**

Bai, aitorezinak.

**Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?**

Bai, denak.

**Orain zarena izango ez bazina, zertan gustatuko litzaizuke jardutea?**

Uff!! Egia esan ez dakit, beste edozertan ibiliko nintzateke.

**Zein da zure ametsetako bat?**

Trankil bizitzea.

**Irakurri duzun azken liburua?**

Pako Aristiren olerki batzuk irakurtzen ari naiz tarteka-marteka, eta momentu honetan *La clave Gaudi* irakurtzen nabil.

**Zer gabe ezin zaitezke bizi?**

Neska barik.

**Euskal Herriko zure txoko kuttuna?**

Nire lagunak.

**Gaua ala eguna?**

Gaua, gaua! ○

**LABURREAN**— Nahiz eta gaur egun Muxikan bizi, gernikarra dugu Alex Sardui. Bertsolari eta kantari familatik etorria, bertatik datorkio kantuekiko zaletasuna. Exkixun hasi zuen bere ibilbide profesionala, baita arrakasta lortu ere: bi lan kaleratu zituen Exkixuk eta diska bakoitzetik 12.000 kopia saldu zituen. Ondoren, Ikastolek aurrera eramandako Txulufirina eta Arrosa proiektuan ibili zen. 2000. urtean Gatibu jaio zen Alex eta Haimar Arejitaren ekimenez. Talde ezagun honek bi diska kaleratu ditu jadanik (*Zoramena* eta *Disko infernu*) eta aurrerantzean ere zeresan handia emango du. Musika alde batera utziz, Alexek *etb1*-eko *Bi Errepidean* saioa aurkezten du Urko Aristigaz batera.



## musika Jaialdia

umeak eta gurasoak abesten eta jolasten!

Xirula-Mirula elkarteko kideek gidatuta, euskal kantak eta jolasak ikasi eta egingo ditugu denok elkarrekin, gurasoak eta umeak. Umeen adinaren arabera bi saio egingo ditugu: 3-5 eta 6-8 urtekoentzat.

Noiz: otsailak 22 (3-5 urtekoentzat) eta otsailak 29 (6-8 urtekoentzat) + 17:00-18:15  
Non: Romoko ikastetxeko gimnasio txikian  
Matrikula: tailerra doan izango da  
Izena emateko epea: otsailaren 20ra arte  
Nola eman izena: telefonoz 685 73 29 63 edo epostaz sendigetxo@yahoo.com  
Begirale zerbitzua: 5 urtetik beherako umeentzat

Informazio gehiago,  
bideoak eta argazkiak  
[www.blogari.net/sendin-1](http://www.blogari.net/sendin-1)

eta horretaz gain, otsailean zehar:  
Pizza tailerra, Dantza ikastaroa,  
tarta tailerra, soinu tailerra,  
gozogintza tailerra eta eski ikastaroa,  
animatu eta izena eman!



EGIZU elkarte eta Getxoko Udalaren proiektua da SENDI, ikastetxe guztietako A, B eta D ereduak 2-12 urteko ikasle eta gurasoentzat da. Gure helburua Getxoko umeen gurasoek euskara erabiltzea eta belaunaldien arteko hizkuntza transmisioan eragitea da.

Proiektu berria  
Getxoko familietan  
euskara sustatzeko





Erreferentziako  
txartela:  
Finantza-txartelen  
erraztasun  
guztiekin eta  
gainera...

**Bidaia-  
asistentziako  
doako aseguru**

abantailak era  
guztietako 2.000  
establezimendutan.

Deskontuak  
mundu osoan  
izateko giltza.

Kontsultatu  
**BBK26 gida,**  
**www.bbk.es**  
orrian